

Nafarkaria

• ostirala • 1998ko urriaren 30a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Bera • Berako erranera zaharrak liburu batean karrikaratu ditu Euskara Batzordeak.

Nekane Oroz • «Euskararekiko jarrera positiboena elebidunek dute beti».



Zaharberritze tailerren arteko lehia

Nafarroako ondare artistiko higigarria zaharberritzen aritzen diren tailer batzuk haserre dabilta azken boladan. Argudiatzen dutenez, ondarea behar bezala gordetzeko egiten diren lanen esleipen gehienak enpresa jakin bati egiten zaizkio. Kontuen Ganbarak egina du txostena aferaren inguruan, baina badirudi baremo berrietan langile horiei titulazioa eskatzea dela azpian dagoen arazo.

Bera ●

Erranerak paperean

Berako erranera zaharrak liburu batean karrikaratu ditu Euskara Batzordeak

Iaz, Berako Euskara Batzordeak Berako erranera zaharren lehiaketa antolatu zuen. Orain, urtebeteren buruan, saria eraman zuen lana argitara eman dute. 40 lagun baino gehiagorekin izandako solasaldien fruitu izan da lana.

BORTZIRIETAKO IKA EUSKALTEGIAN elkarrekin alfabetatzen ari zirela otu zitzairen Paskual, Ana eta Sophieri Berako Euskara Batzordeak antolatutako lehiaketan parte hartzea. Baserrietako zein herriko auzo guztietako jehdearekin zerrenda bat egin zuten, eta banan banan euren elkarrizketak egin ostean, erranera zahar guztiak sailkatu eta lehiaketara aurkeztu zuten lana. 100.000 pezeta eta makila jaso zituzten sari gisa. Baina euren erran bezala, «lana liburuan plazaratu izanak ilusio handia ere egiten du». Denetara 600 erranetatik goiti biltzen dituzten liburak (horietako zenbait errepikatuta), eta igandean paratu zuten salgai Beran, Lurraren Egunean, 500 pezetaren truke (20 libera).

Erraneren erabilera murriztuz doala ikusita antolatu zuen Euskara Batzordeak lehiaketa, horiek berreskuratzeko. Beran erabili izan diren eta oraindik erabiltzen



Bortzirietako IKA euskaltegian elkarrekin alfabetatzen ari zirela otu zitzairen Paskual, Ana eta Sophieri Berako Euskara Batzordeak antolatutako lehiaketan parte hartzea. ● JON ABRIL

diren erranerak bildu dira liburuan.

Horien erabilpena berriz ere bultzatu nahi da liburuaren bidez. «Gero eta gutiago erabiltzen direla bistakoa da, baina ez bakarrik gazteen artean, baita adinekoen artean ere, denbora eskatu zigutelako erraneretaz oroitzeko», diosku Paskual Etxeberriak.

Egileek erranerak gaika sailkatu dituzte. Erranera bakoitzaren hasieran zer adierazi nahi duen azaltzen dute labur-labur. Jatorria zein duten jakitea zaila da, baina gehien-gehienak Beran aspaldidanik erabiltzen direla badaukite, «elkarrizketatutako anitzek

errepikatu baitizkigute erranerak».

Horietako gehientsuenak Euskal Herri osoan erabiltzen badira ere —edo bai behinik behin zati nagusi batean— aldaerak eta bertara egokitutakoak antzeman dituzte. Beran sortutako artean leudeke, bertzeak bertze, *Nolako Maritx, halako Peritx*, Berako bi familiari erreferentzia zuzena egiten diona, edo *Jateko gogorik ez duenak, Larunen mahaia prest*.

Erranerak biltzen ibili zirenean, Berako hainbat pasarte, ixorio, xebelekaria eta gehienbat uztaekin lotutako gomendioak ere kontatu zizkieten. «Horiek ere

erranerak dira, eta guk bildu egin ditugu», adierazi digute. Horien artean nabarmentzekoak dira gaztelania ongi ez menperatzeak sortutako hainbat egoera umoretsu. Tartean, Bortzirietako herri bakoitzeko jendearen sailkapena ere bildu dute. Nonbait, igantziarrrak jakintsutzat hartzen ziren, arantzarrak harrikalariak ziren, etxalartarrak mozkorak, Lesakoak tripatsuak eta beratarrak hitzontziak. Erranera gehienek eguraldiarekin, labrantzarekin eta oro har baserriarekin dute lotura. Garai bateko gizartearen erreferentzia zuzenak dira.

→ Jon Abril

Leitza

Abian da Mugaz Mugako IV. Ibilaldia

LEITZAKO KULTUR TALDEAK ANTOLATUA, joan den igandean hasi zen Mugaz Mugako IV. ibilaldia. Aurtengoa hiru txandatan banatu dute antolatzaileek. Aurrenekoa joan den igandean egin zen. Bigarrena etzi izanen da eta azkena, berriz, azaroaren 8an. Leitzako mugak hobekiago ezagutzeko aukera izanen da ibilaldira, Leitzako inguratuz mugarriz mugari ibiliko baitira.

Joan den igandean Plazaolako geltokitik Korteko bordaraino joan ziren mugarriz mugari, hamaka kilometroko ibilbidea eginez. Etzi egingen duten txangoan Korteko bordatik abiatu eta Uitz, Ezkurra eta Goizueta mugak egin ondoren, Rezolan amaituko dute. Hirugarrena, berriz, Rezolan hasi eta ibilaldia hasi zuten tokian bukatuko dute, Plazaolako tren geltokian. Antolatzaileen ustez, azken ibilaldia da gogorrena. Rezolatik Urepel mendiraino joanen dira eta handik Altezgi tontorrera, gero Plazaolara bueltatzeko. Aipaturakoak ez dira taldeak antolatzen dituen lehen mendi irteerak. Udaberrian jada antolatu zuten bat, eta hark izan zuen arrakasta ikusirik udazkenean besteok prestatzea erabaki zuten.

Parte hartu nahi duenak Astiz edo Maimur liburu-dendetan eman behar du izena gaur, edo heldu den ostiralean, etzi zortziko ibilaldira joan nahi badu.

→ Idoia Martinez-Barranco

bidean begi

MAITE URKIA



Hirian, etorbide zabaleko espaloietan dotore horitzen ari dira ezkiak, ezki, negua iristeko presarik gabe.

Ezkien orbela lagun eta euria egin berria, iragan igandeko bazkalondo isilean hiriak leuna eta naturaren meneko zirudien, aste burrundaratsuan oasi une, eta udazkeneko baso koloretsuen lehengusu ere bai, agian.

Urriaroa, malenkoniaren lurraldea omen, haritz, ezki, pago edo akazi baten ondora arri-matuz gero hurbil-hurbileko edertasun horigorrixa arima pizgarri dugu, lur gozosa lasaigarri den bezainbeste, instant labur batez baidik ez bada ere batentzat edo besterentzat.

Malenkoniaren lurraldean bizi dira, ezinbes-

Ezkiak kaleetan

tean, azaroaren lehenean krabelin eta krisantemoak erostera irtetzen diren oroitzapenak, batzuk beste zenbait baino errotuago bizi bertan, izan ere malenkonia jale baita denbora, eta urratu latzen osagile, osatu beharrekoen ilarara eramaten direnean behinik behin.

Bakardadea galdu eta herriko kale nagusiaren antza hartuko dute berriz ere hilerriek, egun bakar batez; urtean zehar hilarri eta loreak txukundu eta ikustaldia egitera joaten direnak gutxi ez diren arren, beldur moduko bat ere sortzen du kanpasantuan sartze soilak. Bizitzari eta heriotzari buruzko gorabeherak horiek ez bairik gabe, halabeharrezko

lurraldea beti ere, baina edozeinek pentsa dezake hurbileko norbait ehortzia duenarentzat ez dela hain arrotza izaten paraje horietan ibiltzea.

Batek ez jakin arren zergatik hautatu zen udazkeneko egun bat hilak gogoratzeko, ez dirudi desegokia; udaberrian adibidez, dena distira, bakoitzaren bizitzako kimu berriek oroitzapenek baino indar handiagoa izan ohi dute, nahiz eta azken horiek inoiz baino samnago ere azal daitezkeen, *vous savez*.

Krabelinak eta krisantemoak, beraz, oroitzeak egun zehatzik behar ez badu ere, eta ezkiak hori-hori etorbideetan, basoak ederra-goak diren arren.

Lizarra

**Zinemak
eraikitze lanak
abian dira**

LOS LLANOS PASEALEKUTIK paseotxo bat ematean, oraindik oso nabaria ez bada ere, aldaketaren bat suma daiteke. San Benito eraikinarren dorrea desagertu egin dela konturatuko gara. Joan den larunbatean bota zuten antzinakotasunaren lekuko izan den dorrea. Bertako ezkiak ez dute berriro ere dandaka egingen. Haatik, eraikina garai modernoetara moldatuz, udazkenetik aitzina zinema bat eraikiko da barnean. Orotara hiru zinema areto egongo dira: bat handia, 572 eserlekurekin, eta bertze bi txikiak, 215 eta 186 eserlekuak. Halaber, eraikinak aisialdirako aproposak izanen diren bertzelako gelak ere izanen ditu: erakusketa gela, bilerak egiteko salak, musika saiotarako aretoak eta batzar gela.

Eraikitze lanak joan den astean hasi ziren, eta, aurrez ezarritako epeak betetzen badira, udaberri-rako prest egonen da eraikina. Maiatzaren 25ean estreinatzeko asmoa omen dago. Puyko Ama Birjinarren egunean hain zuzen ere. Lizarrako Udalak 153 milioi pezeta gastatu ditu (6,12 milioi libera): 36 milioi pezeta zaharrik indartzen, 12 milioi proiektuak aztertzen eta 105 milioi tailer eskola laguntzen. Eraikitze lanak egiten ari den enpresak, berriz, 290.000 milioi pezetako aurrekontua du.

→ Kristina Berasain

Lekunberri • Folk doinua nonahi

Hainbat herri izanen dira Folk Ametsetan kanpaina

Lekunberri, Elizondo, Castejon, San Adrian, Irurtzun, Zizur Nagusia eta Barañaingo herriek hartu dute parte Folk Ametsetan kanpaina. Ibilbide horixe egingo dute folk musika jorratzen duten hainbat taldek.

ZINEMA MUNDUAN, AMETSAK ISlatu nahi direnean, musika erabili ohi da. Musika goxoa, ametsa ere halakoa denean, eta musika bizia, berriz, amets gaiztoa denean. Ametsak, beraz, askotan musika izaten dute bide-lagun.

Nafarroako Gobernuak babes-tutako ekimen honek, musika behintzat jarriko du entzulearen eskura. Ametsak, gero norberak jarri beharrekoak dira. Kanpaina honi, atzo Barañainen egindako kontzertuak eman zion hasiera. Bertan, Jose Antonio Ramos kanariarra aritu zen, isa eta Kanarietan hain berezkoak diren beste hainbeste kanta eskeiniz. Gaur San Adrianen izango da Ramos, bihar Irurtzunen, igandean Elizondan, gaur zortzi Zizur Nagusian, eta San Castejon.

Javier Krahe ere arituko da kanpaina honetan. Abizenak bestelakorik pentsarazten badu ere,



Gozategi taldea izanen da Folk Ametsetan ibilaldian ariko dena.

• ANDER GILLENEA

madrildarra da. *La aurora* muntaiaren parte hartu izan du Chicho Sanchez, Ferlosio eta Tamaritekin batera. Joaquin Sabina eta Alberto Perez ere izan ditu ondoan. La Mandragoraren garaian. Lehen kontzertua gaur emango du, Zizur Nagusian; azaroaren 5ean, Barañainen, bigarrena; San Adrianen hilaren 6an izango da, eta 7an Castejon.

Euskal musikariek ere izango dute bere tarte amets hauetan. Horieta bat, Erreka taldea izango da. Latinoamerikako herrietako musika gustuko zuten hiru lagun bildu ziren talde honen hasieretan. Zenbait urteren buruan, musika horren sustraiak aztertu eta hainbat ekitaldi egin ondoren, gaur egungo taldea osatu zuten. Gaur gauean, Lekunberri izango

da Erreka taldea. Igandean, Irurtzungeok gozatuko dute bere musikaz, eta gaur zortzi Castejongoek. Gero, hilaren 13an San Adrianen izango dira, 15ean Elizondan eta 22an Barañainen.

Beharbada, partehartzaila guztien artean, Gozategi taldea da ezagunena. Gozategitarrek lehenengo kontzertua gaur emango dute Irurtzunen. Datorren ostira-lean Lekunberri ariko dira; igandean, Elizondan; datorren ostegunean, Barañainen; eta ostira-lean, azkenik, Zizur Nagusian.

San Adrianen egin asmo diren ekitaldi guztiak gaueko 21:30etan hasiko dira, baina gaitzerteko herrietan arratseko 20:00etan hasiko dira kontzertuak. Ordu aproposak, inondik ere, ametsetan hasteko. Kartelean ageri diren arditxo guztiak kontatu eta musika goxoaren laguntzaz, lorik egin gabe, hori bai, zurrunket musika estali baitezakete, eta pena litzateke.

→ Urko Aristi

herri aldizkariak

Edume Elizondo

Heriotza garestia da

Santu Guztien eguna ospatuko da igandean, eta, hori dela eta, heriotzak eragiten dituen gastuei buruzko erreportaiak argitaratu du **Guaixek** bere azken zenbakiko orrialdeetan. Olatz Irizar kazetariak sinatutako artikuluan, heriotza garestia dela ondorioztatzen du Sakanako hilabetekariak: «Herri guztiek kanposantua dute baina ezberdintasun handiak daude lurperatzeko garaian. Herriaren arabera, eta lurperatzeko aukeratzeko duzun eraren arabera (nitxo, lurra edota panteoia), kostua oso desberdina da. Sakanako herri askotan dohainik da lurperatzea: Ziordin; Olaztin, lurrean egiten baduzu; Bakaikun; Arbizun; Uharte-Arakilen, nitxoan eginez gero; Irañetan; eta Arakilgo herri gehienetan. Altsasu eta Irurtzun dira herri garestienak. Altsasun nitxo batek 48.000 pezeta balio du, eta Irurtzunen, berriz, honako aukera hauek daude: nitxo bat erosiz ge-

ro 66.300 pezeta ordaindu behar dira; nitxo bat 10 urtetarako alokatzeak 27.500 pezeta balio du; eta lurrean lurperatuz gero, 21.930 pezeta ordaindu behar zaio Udalari».

«Azken urteotan obra ugari egin dira eta egiten ari dira gure herrietako hilerrietan. Gehienetan kanposantua txiki geratu dira eta handitu behar izan dira. Horrelakoetan nitxoak egin dituzte, leku asko aprobetxatzen delako. Ziordin eta Altsasun bukatu berri dituzte obrak, eta Olaztin proiektuan dago nitxo berri gehiago egitea. Ez pentsa lurperatzea dohainik den tokietan bestelako gasturik ez dagoenik. Gastuak hasi baino ez dira egin: tanatorioan egoteagatik 31.000 pezeta, egunkarian eskelak jartzeko 15.000tik 17.000ra (txikienak), loreak 27.500etik gora, funeriaren zerbitzua 90.000tik gora...».



**ur dai
aren
mintzoa**

Xabier Larraburu

Pasarelak

Larunbatean Magdalenara joan ginen paseatzera. Iruñeko auzo txiki hau ezagutzen ez duenarentzat honatx deskribapen liriko-poetiko-moñoño bat: Txantreako auzoaren ondo ondoan dago, Txantrea eta Burlataren artean, gutxi gora behera. Egian esan ez dakit non hasi eta non bukatzen den. Magdalenan zaudela Iruñeko alde zaharreuntz begiratuz gero, gora begiratu behar duzu eta ez duzu asko ikusiko. Aldamenean ibaia du eta ibaiaren gainetik zubi polit bat (Magdalenakoa ain zuzen ere!) eta haruntzago berdegune bat eta murrak gero, hiriaren harresiak. Zuhaitz asko ere badira, beraien izenak ez dakizkidan euskaraz zein gaztelaniaz. Dena den, zuhaitz hau ez zaie batere axola eta modu berberetan eta ederrean horitzen dituzte hostoak udazkenean eta ur geldia eta ilunaren gainean botatzen dituzte kolore askotako hostotxo hoiek eta hori polita da ikusteko, benetan merezi du. Magdalenatik buelta bat ematea merezi duen moduan. Montxo Armendarizaren pelikulan agertzen diren pasarelak ere hortxe daude. Fama-tuak egin zituen. Begiratu ongi gero. Ez dira nolanhakoak. Pasarela hauek, ni ez bezala, Kalifornian egonak dira. Ia ia oskarrizatuak izan ziren eta guzti. Filmean mutilak bazuen erronka txiki bat ibaiarekin eta bere bildurrekin. Hemen garaila atera zen, hemen zeharkatu zuen ibaia. Gaur egun ezinezkoa izango zitzaien horrelakorik egitea ordea. Orain zeharo birrinduak daude. Arriskutuak zirelakoan Udaletxeak han hemenka apurtu zituen. Modu itxurosoan konpondu beharrean, suntsitu ditu. Eskabadora baten behatz zikiñak pasarela batzuk hautatu eta segituan hondatu egin zituen. Pasabidea galarazteko. Arriskua ekiditeko. Guztiz bortxatua sentitzen naiz ibaiaren ertzean mila aldiz erabili ditudan pasarelei begira. Horrela ikusten ditudanean asaldatzen naiz. Atzera egin aurretik nire gerra-oihua botatzen dut: «alajainkoa! artikulu bat idatzi behar dut hontaz!». Guztitan betetzen dudana gerra-oihu guztiz beldurgarria. Eraildako pasarelak pasa den larunbatean entzun ahal izan zuten oihu bera. Oraingoan behintzat hitza bete egin dut.

Egunkaria
iragarkiak

(943) 300 222

Zaharberritze tailerren arteko lehia

Lanen esleipen gehienak enpresa jakin bati egiten zaizkiola diote Iruñean dauden zaharberritze tailer batzuek

Nafarroako ondare artistiko higigarria zaharberritzen aritzen diren tailer batzuk haserre dabilta azken boladan. Argudiatzen dutenez, ondarea behar bezala gordetzeko egiten diren lanen esleipen gehienak enpresa jakin bati egiten zaizkio. Kontuen Ganbarak egina du txostena aferaren inguruan, baina azpiko arazoa langile horiei eskatzen zaizkien titulazio baremo berrietan dagoela dirudi.

EZ DA GIRO Iruñean ondare artistiko higigarriko artelanak zaharberritzen aritzen diren tailer batzuetan, eta Nafarroan lan horiek egiteko dirua eta moldaketa nork egin erabakitzen duen Principe de Viana (PV) erakundearen euren kexa azaldu dute. Tailerren ustez, lanak era «alderdiko» batean esleitzen dira. Agustín Guillen Lopez eta Roberto Guillen Garcia aitasemak; Juan M. Txoperenak; eta Fermín Arce Ibañez eta Jose M^a Arce Ibañez anaiek osatutako hiru tailerrek izan dira hasarretu direnak. Hainbatetan Principe de Vianan salatu dutenez, «irregulartasun ugari gertatzen ari dira lanen esleipenetan». Nafarroako ondare artistiko higigarriaren %80 inguru Iruñeko Artzapezpikutzak dela aintzat hartuz, Artzapezpikutzako Ondare Idazkaritza da zaharberritu behar diren lanen proiektua enpresa batzuei eskatu ondoren dirulaguntzak bilatzen dituen baina PVk erabakitzen du nori eman. Aipatu tailerren irudikoz, arazoa txosten horien tramitazioan dago. «Arazoa da Artzapezpikuako Ondare Idazkaritzak moldatzeko duen lan zerrenda ez dela eman nahi enpresa jakin batzuei eta aurten idatziz ere esan digute. Beraz, ez du diru publikora sarrera librerik uzten», gaineratu du Guillenek. Gauzak horrela, uste dute zaharberritze lan askotatik baztertuak geratzen ari direla.

Irregulartasun ugari

Baina afera ez da zerrenda hutsen geratzen. Era berean, 1991az geroztik Artzapezpikutzak hiriburuko katedralean duen egoitzetako zentruan CCR S.L. (Zaintze eta Zaharberritze Zentrua) enpresa lekutu da eta hari eman omen zaizkio lan gehienak Artzapezpikutzak horrela gomendatuta. «Nahiz eta haren aurrekontuek gure prezioen halako halako bi edo hiru izan», dio. Bestalde, «jadanik bukatuak edo bukatzeaz dauden zaharberritze lanei dirulaguntzak adjudikatu zaizkie eta legez kanpoko azpikontratazioak onartu dira», dio Roberto Guillenek. Aldiz, Jesus Omeñaca Artzapezpikutzako Arte Idazkaritzako arduradunak ukatu egin du tailerrotako langileek diotena, eta gaineratu du beste enpresa batzuk

egin duten moduan, CCRk bere egoitza Artzapezpikutzak duen solairuetako batean egokitu duela hileroko alokairu baten truke. Ildo bereetik, Carlos Idoate Principe de Vianako Ondare zuzendariak, ukatu egin du lehentasuna dutenik CCRren proiektuak eta aurreko urteetan lanak eman bazaizkio ere, aurten oraindik ez diotela bat bera ere ziurtatu du. Tailerrok, gainera, Parlamentura jo zuten eta IU alderdiak galdera bat baino gehiago egina du lanon adjudikazioak nola egingen diren jakiteko. IUk egindako eskaeraren harira Nafarroako Kontu Ganbarak ikerketa bat ere egin du aurten. Txostenak dienez, PVren kudeaketan ez da irregulartasunik agertzen baina gomendio batzuk egiten ditu. Horien artean, Kontuen Ganbarak dio kontratazio mahaiari Artzapezpikutzak egotea ez dela zilegi dirulaguntzak eskatzen dituenetako bat delako. Baina Kontuen Ganbarak egindako txostenak horrela badio ere, Idoatek esan du ez dagoela kontratazio mahairik dirulaguntzen atalean. «PVko zerbitzuaren txosten bat dago kontseilariak onartzen duena eta Kontuen Ganbarari esan genion ez zegola kontratazio mahairik. Lehenago galdetzen zitzaion Artzapezpikutzari zer zegoen modatzeko baina orduan 12 milioi pezetako aurrekontua zegoen (480.000 libera), kantitatea txikia zen orain irizpideak aldatzen ari dira», azpimarratu du.

Aurten hamalau eskaera egin dira eta bi atzera



bota dira era gehienetan Artzapezpikua da titularrak. Artzapezpikutzatik jasotako txostenak «pobreak, informazio gutxiak eta gaizki planteatuak zeuden eta gehiago eskatu genion, ez zituelako beharrezko irizpide guztiak», gaineratu du. Dirulaguntzetan PVk lanaren %75 arte ordain dezake.

Lanak eskuratzeko baldintzen aldaketa

Baina tira-bira guztion atzean lanak eskuratzeko baldintzen aldaketan dagoela esan daiteke. PVk dirulaguntzen bidea baztertu gabe, lehiaketa publiko bidez eskaintzak egingen hasi zen. 1985ko Espainiako Ondare Historikoko Legeak baimena ematen dio Administrazioari nahi izanez gero, lanaren %100an horrela esleitzeko baina, beti ere, interes kulturalako ondare bezala sailkatzen badira

adjudikatzen diren lanak. Nafarroako Kultura Kontseiluari eskatu zitzaion ondare higigarrien hobereen zerrenda (erretaula, eskultura, pintura, urregintza...). Zerrenda horren arabera erretaulak dokumentatu dira eta beharren arabera egiten dira zaharberritzeak. Gainera, bide hori bultzatu nahi du Administrazioak eta aurten horrelako lanetarako aurreikusitako 35 milioi pezetetatik, %40 dirulaguntzera egokitu dute eta gainontzekoa kontratatazioetarako. Baina Gobernuak bide hori hartzean baldintza batzuk ezarri ditu. Lizitazioetan parte hartzeko titulu ofizialen bat behar da, dela Arte Ederretako zaharberritze espezializazio lizentziatura, dela zaharberritze diplomatura bat. Egun Euskal Herriko Leioako Arte Ederretako kanpusean lor

daiteke titulua. Dena dela, tailerretako langileek ez daude ados erabakiarekin. Dirulaguntzetan titulorik eskatzen ez bada zergatik deialdian bai. Euren ustez «legearen hutsunea» argia da eta esperientzia eta urte askotan ongi egindako lana baloratu beharrean lehenetsuna ematen zaio titulorik. Tailerretarako afera argia da, nahiz eta 30 urteko esperientzia izan lanik gabe geratzen ari dira. Beren iritziz, lana egon badago guztiondako eta esperientzia jasoko lukeen legedi behar egin beharko litzateke, bai hasi berriak zein aspaldian ofizioa arian ariz ikasi dutenak bilduko litzateke. Ildo honetan, Idoatek ere onartzen du legeak huts egiten duela. «1985ko Legearen arabera



Roberto Guillenen zaharberritze tailerretako irudiak
• MIKEL SAIZ

egindako urte bereko dirulaguntzen dekretua ez dugu ukitu nahi izan. Gaur egun, hamalau urte beranduago, gauzak asko aldatu dira eta ukitu beharko litzateke. Espainiako Kultura Ministerioaren pean dagoen Ondare Kontseiluan zer esaten denaren zain gauden», dio. Ondare zaharberritze zain zain titulua zehazteko txosten bat egingen ari da aipatu erakundeak. Dena dela, Titulazioa nahiko berria den arren, 1991an hasi zen ematen joera langile tituludunekin lan egitea da. Esperientziari dagokionez, Gobernuak egiten dituen lizitazioetan asko baloratzen bada ere, ehun puntutik 35 lan esperientzia dira eta bost bakarrik titulua, Europako Batasunean atera berria den arautegi batek dio aurrerantzen ezin izan dela enpresaren esperientzia baloratu.

Aurten Artaxonako erretaula eta Uxueko haulkigintza geratzen dira bakarrik nori eman erabakitzeko. Arce eta Guillen enpresak lizentziatu batekin batu dira eta aurkeztu dute Artaxonakorako proposamena. «Duela lau urte deslota zen Artaxonako eta Artzapezpikutzako tailerretan dago Iruñean. Orain ikusi behar zer ateratzen den», diote.

Dirulaguntzen sistemak ematen dituen arazok ikusirik, bestealde, Principe de Vianak, hala baldin badu behintzat, heldu den urtean denak lehiaketa publikoaren sistema bidez ateratzeko asmoa du.

Bien bitartean, ustez kuadro zahar eta pipik jotako erretaula eta santuen artean ibiltzen ziren tailerretako lasaitasuna joan da eta giroa gori eta muturbeltz dago.

→ Irene Arrizurieta

Kontuen Ganbarak egindako txostena

IUK eskatuta, Nafarroako Kontuen Ganbarak ikerketa bat egin zuen aurten Principe de Viana erakundeak ondare higigarria mantentzeko eta zaharberritzeko erabilitako irizpideak zehazteko. Txostenak dienez, 1991 eta 1997ko urteen artean Nafarroako Gobernuak 119 milioi pezeta (4,76 milioi libera inguru) erabili zituen egindako 123 lanetan edo ekintzetan. Diru horren hiru laurdenetatik bi Iruñeko Artzapezpikutzak jaso zuen, bera baita herrialdeko ondare artistiko gehien duen erakundea ere. Dena dela, hiru tailerrek mahai gaineratutako kexak lanak aukera

tzeko eraturako batzorde teknikoan oinarritzen ziren. Horretan, Artzapezpikua parte zela esaten zen eta Kontuen Ganbarak dirulaguntzen hartzaile bezala ez zela egokia zioen txostenean. Era berean, beste nabardura batzuk egiten baditu ere, orokorrean ontzat ematen du Principe de Viana erakundearen lana. Ikerketaren arabera, kudeaketa «lege jarraituz egiten zen eta azken urteetan eskatzen ziren txostenetan informazioa osatuagoa eta zehatzagoa zen. Beraz, garapena positiboa izan da».

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Julia Fernandez Zabaletaren
mendeurrenean

Aipatua dugu jadanik Julia Fernandez Zabaletaren ekarria gure honetan, alabaina, betiere urrixa litekeelakoan, ez zaigu inolaz ere pekatuegi iduritzen emazteki honetaz berri bertaraztea, honekin bederen iruñar guztiengana iristeko balio badu. Areago, fite joaten ari zaigun aurtengoan horren temati sarrarazi nahi izan diguten 98.eko belaunaldi espainiarraren oihartzunaren parean, gureago den beste baten mendeurrena ospagarri dugunean.



IZAN ERE, JULIA FERNANDEZ ZABAleta Iruñean sortu baitzen 1898.eko urriaren 9an. Aita zuen Valentín Fernandez mendigorriarra Iruñeko eliz-nagusiko organujole iritsi zen nafar hiriburura, eta hortaz, kalonjeek ahalbidetuari eskerrak, Dormitalleria karrikan ezarri zuen bizitokia. Jimeno Juriok Nafarroaniko euskararen historia utzi zigun azken liburuan fagot-jole famatu aurkeztu zigun Juliaren aita, eta jakin ere badakigu musika irakasle ezaguna bazela mende hasierako Iruñe hartan; Juliaren ama, berriz, Kontxesi Zabaleta genuen, Ziraukiko alaba zena. Etxean laugarren bat ere bazen, aitaren izenkidea zen Juliaren anaia, legegizon jeltzale ezaguna, gerratea hasterakin ber. Mexikora jo behar izan zuena, non, honera egin gabe, zendu baitzen.

Etxetik urran zuen magisteritza eskolan ikasi zuen Juliak, maisu agiria 1916. erako erdie-tsirik. Orduan, Iruñeko udalak emaniko beka batez baliaturik, Bartzelonara jo zuen Maria Montesso italiarraren irakaskintzak ikasteko asmoz. Behin iruñeraturik, txosten mardula idatzi zuen udalarentzako, Montessok Erromako langile auzotan haur-hezkuntzan erabili berrikuntzak zertan zeuzkan azalgarri. Honekin, bada, ikas-aldiari amaiera emanik, San Frantziskoko ikastetxean sartu zen nesken irakasle, 36.eko gerrateaz geroz, eta erregimen berrira ez lerratzeagatik, beste berrogeiren bat irakasle gehiagorekin batera bere kargutik kendu zuten arte.

Politika mailan, arras izen sonatua izan zen Juliarena. Emakume Abertzale Batzaren barruan, lehenbiziko lehendakaria izan zen Iruñeko taldean, eta geroantzean ere, horretan eratuko ziren kontseilu guztietan arduraren bat bazegokion beti. Emakume Abertzale Batza 1922. ean

sortu zen Bilbon, eta handik gutxira, Primo de Riveraren agintaldian, debekatua izan bazen ere, 1931. ean berregin zitzaizgun, Bizkaitik hasita. Nafarroako lehenbiziko taldea Iruñean eratu zen 1931.eko urriaren 29an, eta Lizarrakoa azaroaren 14an. Orduetik talde ugari agertuko ziren Nafarroa osoan zehar: Agoitz, Leitza, Tafalla, Martzilla, Goizueta, Arbizun, Obanos, Auritz, Zangoza, Ituren, Atarrabia, Elizondo, Sesma edota Irurtzunen, eta gerratea hasi zenean, bazeuden 30 talde gehiago sortze bidetan, eta 2.000tik gorako bazkide.

Politikaren bidean behin sartuz gero, arras ezaguna egin zen hizlari bezala, eta aunitzetan arizan zen jeltzaleen aldeko botoa eskatzen herrietan eginiko mitinetan. Manuel Irujorekin batera Tafallan izan zen 1932.eko abenduaren 8an, eta 1933.eko hauteskundee-tarako mitinak Olaguen eta Ostizen-azaroaren 12an-, eta Urrotz eta Monrealen-azaroaren 13an- eman zituen, Jose Agerre euskaltzainarekin batera. Julia ez zen euskalduna sortzez, baina zalui euskaldunduko zen, Blas Alegria lakuntzarrak bere *Gure ama* idazkian jaso zigunez: «Julia Fernandez anderetxua: bein baño geiagotan itzaldi sendoak egin ditu euskeraz. Aietako bat argitaratu du Euskalerraren Alde aldistingiak, eta beste bat, euskara ikasten asi zanetik urtebetean esana, bigarren euskalegurenetako itzaldiak, Bermeon».

Alegriak aipaturiko lehenbiziko mintzaldia 1923. ean Donezteben Euskaltzaindiak antolatu euskal egunetan eginikoa izan zen, ber urteko *Gure Herria*-n ere ageri zena, eta non euskararekiko zuen atxikimendua aski


argi utzi zigun: «Gure anima eta gorputzeko ondasunak, gure aberastasunak, gure eskubideak gorde nai baditugu izan gaitezen euskaldun zintzoak». Bigarrena, berriz, 1924.eko abenduaren 14an eman zuen, «Emakumearen etorkizuna» izenburuean, beste hainbaten lanekin batera *Itzaldiak* izeneko bilduman agertu zena -Donostiako Martin eta Menaren moldiztegiaren 1926. ean-. Honetan azaldu zituen ideia nagusiak emakumea edozein ardurari ekiteko gizona bezain gauza dela eta emakumeek lan eta hezkuntz eskubide osoak izan behar dituztela ziren. Halaz ere, abertzale ikuspuntutik, Juliak euskal emakumearen bete beharra honakoa zela irmoki



uste zuen: «Emakume euskaldunaren zeingia ama ona ta emazte ona izatea da». Honakoaren adibidea Arturo Campioni eginiko omenaldian ogutzi hitzaldia liteke, 1931.eko azaroaren 29ko *La voz de Navarra*-n agertu zena: «El mismo soplo que nos ha ido borrando nuestros fue-ros, nuestras leyes, nuestras costumbres y nuestra lengua, quiere borrarlos de una vez algo que sería peor que todo, porque sería como quitar el corazón al pueblo vasco; que el corazón de nuestra raza es la familia, que la única familia posible es la familia cristiana, que contra ella se va y que ello no será sin que la mujer vasca, en defensa de todo lo que es suyo, se oponga con todas las fuerzas de su alma». Guztiarekin, EABko emakumeek gogor egin zuten lana, hasteko, EAJan berean afiliatu ahal izateko 1932.era arte lortu ez zen gauza: «Erri askotan emakumeak gizonak ainbat eskubide ditu; ogibide guziak irikita dauzka, ta gizonarekin batean jauritzen ditu erriak».

e t o r r i a h a l e a n

Patziku Perurena



Euskal Herriarrok...

MITIN BATEN HASIERA dirudi horrek, eta gailentzen ari da. Euskaldunon Egunkaria, Euskal Herriarrok... Zer adierazi nahi ote digu? «nosotros los vascos edo?... Ez dut ongi ulertzen, eta abertzale zahar haien leloa datorrit gogora: «nor gera gu? zer gera gu?...» Bai, haiek «euskotarrak» omen ziren, baina oraindik ez dakite zer eta nor zen «gu» hura. Eta abertzale berriok bai «ok»? Harritzen naiz. Poetiko eta guzi bailitzake gure gaitza bokal batek sendatzea.

Ezen gero «hau ez da España, Ez eta France ere». «Hau Euskadi da», dakarte paparrean itsatsia. Eta ez dute nahi Euskaldunon Egunkari arrotzik leitu. Euskadiko prentsa nahi dute. Egin euskañolez, eta hori bahitu ezker, *Euskadi Informazio egiten* segiko omen dute euskañolez ezkerka. Ez, *Euskal Herriarrok*, bular gainera hitzak ez dazoz bat bularpeko odolaren mintzoarekin. Aspaldikoa dugu hitzen ondoeza, baina atzenaldera nabarmentzen hasi zaigu, zorionez.

Arrotz: «Arrotza eta atzerriko ez dira sinonimo; arrotza beti da bertoko, eta egia honek, lagunok, min emoten dit». Elkarri begira jarri ordu, eskuin aldera joaten zaizue beti begiratua. Ezkerra erre nuelakoan edo?... Bai, baina azalez; barrendik sano dauzkat bi nini ederron zain gorriak. Halere, «hemen guztietan badut norbait, hura bertakokoa dela ez ni, agintzen didana, eta euskara ofizialez gainera, halaholaka bada ere». Eta horrek, amigo, min biziagoa emoten dit.

Auzolana; mitikoa da gure artean, baina nik ez dut hitz ongieztua besterik ezagutu. Zenbat sigla eta zenbat burruka gure herri tipietan: Hipermaioritarioak minoritarioen kontra, hipertroskistak maoisten kontra, hiperabertzaleak espainolisten kontra... Zenbat indar galtzen zen alferrik, zentzurik

gabeko burruka haietan. Esker-rak gero polizia frankistak ez zuela gure sofistiazio ideologikoa guk bezainbesteko fineziaz bereizten, komunista abertzaletzat hartuz eta abertzalea komunizatzat.

Lehenko hiper haiek gero beste hiper batzutan sartu dira: Hiperabertzale batzuk hiperestatatu espainolaren funtzionario, hiperiraultzale asko hipermerkatuetako jerente... Hori bai, orduko hipersektarioek, nonahi daudela ere, hipersektario izaten segitzen dute. Ez, auzolanik ez; auzokaltea egin da hemen harrapazka.

Aberriak: «A» berria du euskaraz. Zulo bat tapatzeko erabiltzen da. Herria galdu arte ez zuten euskaldunek aberria asmatu beharrik izan. Hori dela eta, badira euskaldunok lotsa apur batekin esaten ditugun hitzak: aberria, Euskadi...

Abertzaleak: Euskal Herriari, politikako gauzak hain daude ilun, eta euskaldunak beren herriaren independentziari ala dependenziari buruz hain sinesgaitz eta zalantzan ze, emoten du inor abertzale de-
nean «a ber...» sarritan esaten duelako dela «aberkesale».

Alderdiak: Hau alderdien sa-soia da. Saldoka antolatu eta arazoak, saldo bakoitzak bere partetik eta erdizka ikusten duen jendearen sa-soia. Alderdi ona bakoitzarena.

Alderdikideak: Ez da posible alderdi batetan luzaroan irau-tea idiota izan gabe. Alderdirik alderdi dabilzanak dira bizko-
rrenak.

Eta horra, nere izen zakarra ere alderkide berri orain? Gezurra. Nik behar orduan eman edo eskatzen diot botoa jende jakinari, eta deus banaiz, herriar euskalduna naiz. Hain zuzen, menderen mendetatik mila sigla politikori sahiets eginez datorren tradizio euskaldun fiakaitz bateko seme. Eta aze poza nere, *Euskal Herriarrok*, fiakaitz izateko arrazoi guziak hautsiko balizkidate behingoz.

Ziria

• Motxorrosolo •

Ez ur, ez ardo

M AKARROJEN GISAN, KANPOTIK GORRIAK BAINA BARNETIK ZURIAK, PETRIK Udal Plazan duela lau urte errandakoa. Oraingo honetan, Gabrielen ondorengoak elkargunea dute xede. Bakarren batek Lizarberen asmoak zintzoak direla baieztatu du. Azkenekoak ikusirik, bietako bat, edo aitabitxia -bat baino gehiago diren honetan-, du oztopo eta bidegile edota ohi den bezala, ez ur, ez ardo; ez zuri, ez gorri; ez zaldi, ez asto, to astomasto. Bizkitartean legebiltzarreko mahaia buruan eseri ohi denak, ez du Madrilen laguntza uxatzen ezta uztez eskubitarra izanen den hurrengo gobernuan zuzendaritza nagusi bat baztertzen.

Nekane Oroz

Hizkuntza irakaslea

«Euskararekiko jarrera positiboena elebidunek dute»

Euskara Nafarroan. Sinismenak, jarrerak eta ideologiak doktorego tesia irakurri berri du Nafarroako Unibertsitate Publikoan Nekane Oroz hizkuntza irakaslea. Orozen arabera, orokorrean, euskararekiko jarrera positiboa dute nafarrek. Dena dela, Euskararen Legeak eragindako zonifikazioaren arabera elebidunen eta elebakarren iritzia oso ezberdina da maiz.

BOST URTE EMAN DITU IKERKETA egiten. Nekosoa izan omen da, baina Nafarroan euskararekiko jarreraren gaiak beti asko erakarriz izan duelako hasi zuen, eta behin abiatuz gero ezin bukatu gabe utzi.

■ Zer jaso duzu lanean?

Nafarroan euskararekin dauden jarrerak eta sinismenak aztertu ditut. XVI. mendetik honaino euskararekiko dauden ideiak ikertu ditut eta zein faktorek izan duten eragina: mitoak, ikerketa zientifikorik eza, euskara beti gaztelaniarekin konparatu izana eta abar. Euskal idazleak aztertu ditut eta Euskal Herriaren egoera soziolinguistikoak eta marjinalak mitohoriek sortzeko izan duen eragina. Halaber, gaur egun Nafarroan dauden euskararekiko jarrerak ikertu ditut. Horretarako, inkesta bat prestatu dut. Aldagai ezberdinak erabiliz —sexua, adina, ikasketak, gaitasun linguistikoak eta zonifikazio linguistikoak—, ehun laguni egin nien inkesta, eta ondorio batzuk atera ditut.

■ Zein dira ondorio horiek?

Lehenago egindako ikerketekin konparatuz, egun euskararekiko jarrera positiboagoa da Nafarroan. Euskararekiko jarrera positibohoriek beti daude lotuak arrazoi afektibo eta moraletara, norbanakoaren hizkuntzarekiko duen loturara, alegia. Euskara hizkuntza bezala kontsideratzen hasia da, ikasteko eta eduki zientifikoak emateko gai den hizkuntza moduan. Era berean, jarrera positiboagoa dago gazteengan.

Euskaltzaindiak 1979an kalera-tutako *Conflicto lingüístico en Euskadi* liburua atera zuenean euskara ez zen kontsideratzen kulturarako hizkuntza moduan, eta hori aldiz oso argi dago hori.

■ Euskararekiko jarrera positiboa dela diozu, baina nabardurekin, eta eragin handia izan duela 1986an indarrean sartu zen Euskararen Legeak eragindako zonifikazioak.

Bai, izugarritzko diferentzia ikusten da elebidunen (euskara eta gaztelania dakitenen) eta elebakar gaztelaniadunen artean, eta Euskararen Legeak egin duen

zonifikazioan. Elebidunen artean eta zonalde euskaldunetan bizi diren artean daude beti euskararekiko jarrera positiboena. Hori oso nabarmena da beste eskualdeetakoekin konparatuz.

■ Zertan nabaritzen dira diferentzia horiek?

Euskal hiztunek balio handia ematen die euskarari,

baina uste dute ez dagoela behar adina baloratua gizarte ingurunean edo lan munduan. Oso interesgarria da elebakarrek eta elebidunek horren inguruan zeinen iritzi ezberdina duten ikustea. Elebidunek, balioa eman arren, gutxi kontsideratua dagoela uste dute. Euskaldun ez direnek, aldiz, aurkakoa pentsatzen dute, eta asko balio duela. Bestalde, hizkuntzaren galera ere oso modu ezberdinean ikusten dute. Euskal eremuan bizi diren euskal hiztunek euskarak atzera egin duela dioten bitartean, zonalde mistoan eta ez euskaldunetan bizi diren elebaka-

rrek aurkakoa iritzi diote, eta izugarri aurreratu duela.

■ Horrek adierazten du euskaldunak euskara oraindik ere prestijiorik gabe ikusten dutela?

Ez nuke hori esango. Haiek garrantzia ematen diote baina inguruak ez, eta horregatik uste dute esandakoa.

■ Zein eragin izan du zonifikazioak?

Zonifikazioak kalte izugarria egin dio eta egiten ari zaio euskarari. Zonalde ez euskaldunetan dauden biztanleek oso argi markatzen dute euskara ez dela horkoa.

■ Zure ikerketa esanguratsua da baina gizartearen zati baten jarrerak ez du islatzen zuk esandakoa. Ikusi besterik ez dago UPNren Gobernuak zer jarrera duen euskararekin hainbat gaitan.

Egia da. Nirean ez da horrelakorik islatzen, zeren eta euskara kulturarekin lotzen da eta galde-tutakoek kontrako jarrera adieraziko balute kultura gabeko jendea direla onartu beharko lukete. Baina egon badago eta agintari batzuen artean oso nabarmena da. Dena dela, euskararekiko jarrera



● MIKEL SAIZ

soslaia

Nekane Oroz uhartearra Espainiar Filologiako lizentziaduna da, eta urte askotan Hegoalde Udal Ikastolan egin du lan euskara, gaztelania eta ingelesa irakasten. *Euskara Nafarroan. Sinismenak, jarrerak eta ideologiak* doktorego tesia egiteko, Nafarroako Gobernuaren ikerketa beka bat jaso du eta bikain *cum laudem* nota lortu du.

Egun, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Hizkuntzetarako Goi Mailako zentroan ari da lanean. Bordeleko Unibertsitatearekin duten proiektu batean ari da, Gaztelania ikasteko unitate didaktikoak prestatzen, beste irakasle batzuekin elkarlanean. Bestalde, unibertsitateko Filologia departamentuan euskal herri aldizkariari buruzko ikerketa bat egiten dihardute, eta dena uste bezala badoa azarorako bukatuko dute.

Uhartearra bada ere, orain Labion bizi da. Bi haurren ama da, eta ez daki unibertsitateko lana bukatutakoan Udal Ikastolara klaseak ematera itzuliko den edo ikertzen jarraituko duen.

ez da kontrakoa Nafarroan baizik eta politikoen artean. Agintariak jokatzeko modua ikusita ematen du kontrakoa dela eta ez da egia. Aurkako jarrera agertzen da baina oso portzentaia txikian. Dena den, %15ek nahiko baloratuta dagoela dio eta indiferentzia handia da desagertuko dela galdegiten bada. Euskara desagertuko balitz %15i ez litzaieke axola, eta ehuneko hori ez da txikia. De-

na den, jendea euskaren kontra ez dago. Baina euskararen erabilpenaren faktore kanpolinguistikoak aipatzen ditu jendeak. Nahiz eta nafarren jarrera positiboa izan, aspektu objektiboak nahastuak daude eta ez dago aldeko politika garbirik, ez hezkuntza ertainean, ez eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan ere.

→ Irene Arrizurieta

BEKARIO!



Nafar Kronika

Pello Goñi

Tafallako ferietan

Tafallako zaldi feriak. Igandea. Eskorta berrietan dabilta tratulariak: bertakoak, kokoak, ijitoak eta baztandarren bat (*tuku tuku, almoeta kolkuan*). Sosa dantzan eskuz esku, BEZik gabeko salerosketetan. Dantzan ere botoa Probintzietan. Irakurketa anitz emaitza bakar baten inguruan. Tafallatik Probintzietara. Bidean, nonbait, Euskal Herriak behar du izan. Tafallatik espetxeetara Euskal Herriarengatik. Araizi 15 bat bisita galarazi omen dizkiote jadanik, bisitariak jende «galztoa» zirelako aitzakian. Apaiz baten bisita ere ukatu omen diote Tafallako parlamentario ohiari, duela ez dakit zenbat urte hura ENAMen nahasirik izandu omen zelakoz. Badira zigor batzuk doble ordaintzen direnak. Mahaikideena, kasu. Berdintsu edo okerrago gertatu da nik ezagutzen ditudan zenbait intsumiturrekin: espetxean ordaindu eta kanpoan ere bai. Kanpoan ere lantoki batzuetan trabak paratu izan zaizkielako; kanpoan ere Administrazioan edo haren adarretan betoak izaten dituztelako. Mundu honetan, batzuk, saltsaren erdian harrapatuta ere, aske bizi edo, kasurik onenean, kartzelara nekez joan eta aise ateratzen dira. Beste batzuk, ordea, errugabeak izaki, bidegabeko zigorra betetzeaz landara, urteetan zehar segitzen dute ordaintzen. Euria ari du Tafallan. Feria eguna. Bertako udal banda kioskoaren estalpean jotzen ari da. Plazako arkupean paratutako ziza erakusketara bildu da jendea. Tafallatik Probintzietara bitarteko bidean, nonbait, bakeak behar du izan, ordaintze bikoizturik gabeko bakea, bidegabeko zigorrik gabea. Hala uste dut nik.

gure aukerak

KONTZERTUAK

- ▶ **Lekunberri:** Leihotikan eta Noizbait taldeek kontzertua eskainiko dute gaur, 23:00etan, Gaztetxean.
- ▶ **Iruñea:** Radici del Cemento, Fermin Muguruza eta Dute. Todos tus Muertos, Wemean eta Lif taldeek kontzertua eskainiko dute bihar, Anaitasuna kiroldegian, 21:00etan.
- ▶ **Iruñea:** Jerusalemgo Orkestra Filarmonikoaren emanaldia izanen da heldu den ostegunean, 19:45etan, Gaiarre Antzokian.
- ▶ **Iruñea:** Los Sugus taldearen kontzertua izanen da datorren ostegunean, Terminal tabernan, 21:30etan.

ZINEMA

- ▶ **Arantza:** Gaur 40 ordu filma eskainiko da eskolan, 21:00etan.
- ▶ **Iruñea:** Datorren ostegunean *America, America* pelikula pantailaratuko da 19:45etan Olite zineman.

ANTZERKIA

- ▶ **Arantza:** Zirko Tipia taldeak *Txalozirkus* lana eskainiko du etzi, eskolan, 18:00etan.
- ▶ **Tutera:** Gaztanbide antzokian *Un día cualquiera* lana antzertuko da gaur, 20:30etan.
- ▶ **Iruñea:** Founambules taldeak *Skidding* lana taularatuko du bihar, 20:00etan, Nafarroako Antzerki Eskolan.
- ▶ **Zangoza:** Eslava taldeak *Laratonera* lana taularatuko du gaur, Carmengo Auditoriumean, 20:30etan. Bihar, berriz, *Crimen perfecto* eskainiko du, eta etzi *Casado de día, soltero de noche*. Bi egunotako emanaldiak 18:30etan eta 21:30etan izanen dira, aurrez aipatutako toki berean.

BESTELAKOAK

- ▶ **Elizondo:** Egin egunkariaren aldeko triki-poteoa egingen da gaur arratsaldeko 18:00 etan. Poteoa Intza tabernan hasiko da.
- ▶ **Arantza:** Pello Añorga haurrentzako ipuin kontalariak emanaldia eskainiko du bihar, eskolan, 17:00etan.
- ▶ **Arantza:** UEMA Kultur Elejira

ren barruan nekazaritza eta artisautza erakusketa izanen da frontoian etzi, 10:00etatik aurrera.

- ▶ **Iruñea:** Mikel Garaikoetxea mendizale tolosarrak *Ekua-dor, Sumendi herrialdea* izeneko diapositiba emanaldia eskainiko du, gaur, 20:00etan, Nafarroako Kirol Elkarte egoitzan.
- ▶ **Iruñea:** Patxi Zabaleta idazleak

Errolaren harria liburuz —kaleratu duen azken eleberriaz— hitz egingen du heldu den ostegunean, NUPeko 106 gelan, 18:00etan.

▶ **Barañain:** Kultur Etxeak X. Argazki Lehiaketa antolatuta du. Saria 400.000 pezetakoa da. Lanak azaroaren 11 baino lehen igorri behar dira Kultur Etxera. Lehiaketaren oinarriak 948-185310 telefonoan.

Harri Fiction

Urdirzo-Lacostini

iragarkietan gure begiek
atseden hartzen dute. gorputz
ederrak, toki exotikoak,
amets prefrabrikatuak.



nork saldu ote digu mundu
miserable eta zeken hau?